

Bezeroekin Harremanak Kudeatzeko Estrategia

Laguntza Pertsonala eta Pertsonalizatua:

- Gurasoekin harreman estua izatea nahi dugu, konfiantza sortzeko. Arduradun bat izendatuko dugu gurasoekin zuzeneko komunikazioa izateko, haurren inguruko informazioa emanez.
- Bilerak: Astean edo hilean behin bilerak egingo ditugu, pertsonalki edo birtualki, haurren aurrerapenak eta gurasoen zalantzak argitzeko.

Zerbitzu Automatizatuak:

- App-a: Plataforma digital bat garatuko dugu gurasoek izen-emateak, ordainketak eta haurren ordutegiak eta jarduerak kontrolatzeko. Honek erraztasuna eskaintzen du presentzia fisikorik gabe.

Gurasoen Komunitatea:

- Elkarrekintza Gunea: Gurasoentzat komunitate digital eksklusibo bat sortuko dugu, haien artean esperientziak partekatzeko eta kanpoko jarduerak antolatzeko. Honek taldean parte hartzeko zentzua ematen die eta leialtasuna indartzen du. Eta umeek lagun takde bat sortzeko ahalbidea.
- Ekitaldi Bereziak: Familiaren Eguna edo Haur Hezkuntzako Tailerrak antolatuko ditugu, gurasoak eta haurrak parte hartzeko, komunitatearen harremanak indartuz.

Zerbitzuak :

- Iritziak Bilduz: Gurasoei iritzia ematea eskatuko diegu zerbitzuari buruz, hobekuntzak eta zerbitzu berriak ezartzeko ideiak jasoz.
- Plan Pertsonalizatuak: Familia bakoitzaren beharretara egokitutako zerbitzuak eskainiko ditugu (adibidez, ordutegi bereziak, eskola-laguntza zerbitzuak, etab.).

Bezeroak Mantentzeko eta Hazteko Ekintzak :

- Hileko Harpidetza: Hileko harpidetza zerbitzu bat eskainiko dugu, prezio finkoarekin, hilabete batzuetarako zerbitzua kontratatzen dutenentzat deskontuekin.
- Gomendio Programa: Gure zerbitzua gomendatzen duten gurasoei sariak emango dizkiegu, esate baterako, deskontuak edo zerbitzu osagarriak doan.
- Zerbitzua amaitu ondoren ere laguntza: Amaitutakoan ere laguntza eskainiko dugu, edozein zalantza edo zerbitzua egokitzeko beharrianetarako.